



BANDOA

LANGABETUAK KONTRATATZEKO 2019KO DEIALDIA

(LAN POSTUA: ZERBITZU ANITZAK- PEOIAK ETA GARBITASUNA)

Etxarri Aranazko udalak Nafarroako Gobernuako Enplegu Zerbitzuak ateratako diru laguntza deialdi baten bitartez herriko langabetuak kontratatu behar ditu (3164/2018 Ebazpena, 2018ko abenduaren 13an). Diru laguntza jasoko duten kolektiboak: Emakumeak, RIS, desgaitasuna frogatzen dutenek, genero indarkeriaren biktima diren emakumeek eta 45 urtetik gorako gizonak edo iraupen luzeko langabeak diren 30 urtetik 44 urte bitartekoak.

Hiru (3) langile kontratatuko dira, lanaldi osoan eta gehienez 6 edo 12 hilabeteko epean.

Euskara jakitea nahitaezkoa da, lanerako hizkera euskara delako. **Proba 2019ko apirilaren 8an (9:30etan) Etxarri Aranazko liburutegian egingo da.**

Proba teorikoa, 2019ko apirilaren 10ean, 9:30ean, Etxarri Aranazko liburutegian egingo da.

Ondoren, teorikoaren emaitzekin batera, proba praktikoa noiz eta ordua jakinaraike da (udal hiltegi zaharrean egingo dira).

IZENA EMATEKO EPEA ETA TOKIA:

2019ko apirilaren 2an, asteartea, 14:00ak arte.

Non: Altsasuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuan.

Deialdiaren baldintza eta zehazpen gehiago udal bulegoan eta udalaren Web orrian (www.etxarriaranatz.eus)

Etxarri Aranatz, 2019ko martxoaren 11an
ALKATE Anderea
Eneka Maiz Ulaiar

